

Info  EUSKARAZKO TRESNAK

Informatika euskalduntzen

UZEIren sinonimo hiztegiko MSWord programa aurkeztu berri dute

Xabat Zabala

Askotan esan ohi da hizkuntza batek bizirik iraun behar badu garai berrietara egokituz izan beharko duela. Euskarak, lan-ingurune berrietan bere lekua izateko, hiztegi aberatsa garatu du, eta zientzietarako balio ez zuen hizkuntza zela esaten zuten ahotsak isilarazi ditu. Horretaz gain, informatika ingurunean euskararen erabilera errazten duten tresnak ageri direla eta euskarak hizkuntza aurreratuen lekua hartuko duela pentsatseko zantzuak agerian daude.

Euskararen erabilera sustatzeko lagungarri izango diren gailu informatikoen adibide du gu iragan astean ezagutu genuen tresna berria. Donostiako Informatika Fakultatean aurkeztu zuen Imanol Olaizola oiartzuarrak bere karrera bukarako proiektua: UZEIren sinonimo hiztegiaren MSWord programa. IXA taldea, UZEI eta Hizkia informatika enpresaren elkarlana beharrezkoa izan da proiektu honetan. Egileak aitortu zuenez, lan honetan hainbat oztopo aurkitu ditu. Besteak beste, tresna integratzeko testu prozesadore ospetsuena MS Word izanik, Microsoft etxeak integratzeko eskaintzen dituen baldintza teknikoek murriztapenei aurre egin behar izan die. Hala eta guztiz ere, tresna aztertu ahal izan duten guztiak ados jarri dira produktu ondo txukuna dela adierazteko orduan.

Idazkera aberatsik izan ez eta ordenagailuan idazten aritzen

garenontzat tresna aparta da aurkeztu berri den hau. Word ingurunean idazten ari garen bitartean idatzi berri dugun edozein hitz ordezkatu nahi izanez gero, tresna honek hitz horren sinonimoak zerrendatuko dizkigu. Sinonimo bakoitzarekin batera informazio gehigarri bat ere ematen da —mota, erabilera...—. Beraz, lehendik erabilgarria den UZEIren sinonimo hiztegiaren atzitze azkarra ahalbidetzen duen Word programaren gehigarri hau inguru informatikorako guztiz erabilgarria da. Sinonimo hiztegi arrunt baten erabilera aukerak ezagutzen ez dituenarentzat harrigarria gerta daiteke baliabide honen erabilerarekin lortzen den hizkuntza aberastasuna. Horretaz gain, sinonimoak eskuratzeko ematen den erraztasunak beste erabilera batzuk emateko aukera ere eskaintzen du. Adibidez, sinonimo hiztegiaren erabilerak hizkuntzaren ikasketan laguntzen du; ulermen arazoak dituzten euskaldun berrientzat lagungarriak diren sinonimoak ikusatzeko aukera dakar programak.

Produktu hau urte honetan jarriko dute erabiltzaile euskaldun guztion eskura. Hala ere, egileak aitortzen du etorkizunean baliabide hau aberastea komeniko litzakeela. Batetik, sarrera berezi batzuk ezagutzeko dituen beharra sumatu dute. Bestetik, Microsoften zurruntasunak gaur egun ahalbidetzen ez duen sinonimoen erabilera adibideak barnertzea interesgarria ikusten da.

Tresna integratu berri hau lehenago IXA taldeak garatutako hizkuntza gailuen zerrenda luzatzera dator. Izan ere, euskaraz egoki idazten laguntzen duten eta guztiz erabilgarriak diren tresna multzo garrantzitsua merkaturatu du talde honek. Ezagunena dagoeneko MSWord programan integratuta dagoen Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa da. Hala ere, Elhuyarren hiztegi elebidunaren Worderako integrazioa ere osatu dute. Horretaz gain, orain arte sorturiko tresnen atzean ezkutatzen diren gailuek ere merezi dute aipamenik, hizkuntzaren prozesamendurako oinarritzko tresnak baitira. Euskararen ezagutza informatikorako bizkarrezurra eginda dago; bizkarrezur hori sendotu eta kimu berriak ateratzea da etorkizuneko lana.



Imanol Olaizola

Sinonimo hiztegiaren sustatzailea

■ Zer etorkizun dauka euskarak informatikaren baitan?

Informatika munduan euskarak etorkizun oparoa dauka. Alor honetan batez ere IXA taldea ari da lanean, eta gogotsu ekin dio euskarako produktu informatikoak sortzeari. Gainera, ingeleserako tresna interesgarri asko daude eginak; euskarak horietatik hartu beharko lituzke eredu. Jakina, ingelesezko tresnen antzekoak egiteak haratago, euskararen berezitasunak zaindiko dituen produktuak sortzea litzateke egokiena.

■ Zuk ere gustura asko jardu duzu lanean...

Euskara maite duen informatikari batentzat ez da berdina gaztelerarako edo ingeleserako produktu bat egitea edo hizlari euskaldunak laguntzeko produktua sortzea. Hau da, euskaldun informatikari batek motibazioa bikoitza dauka euskararako tresna sortzen ari denean.



galderak zalantzak galderak zalantzak

ORDENAGAILUEI EDO INFORMATIKARI BURUZ DITUZUN ZALANTZAK ARGITU NAHI DITUZU?

Bidali galderak unimatika@egunkaria.com helbidera eta argituko dizkizugu.

iMac berria eta Appleren egoera aurreko artikulu batean aipatzen zenutena baino okerragoa dela dirudi. Zein da egia?

Gorka Etxeberria

Appleek jaiotzetik aitzina jarraitzaile sutsuak eta etsai porrokatuak izan ditu eta, hortaz, kritikak era guztietakoak izan dira. Gaur egun ere denetarikoa entzun daitezke. Egia bakarra salmentetan behera egin dutela da. Hala ere, oraindik ez da aztertu iMac berriaren salmenten eragina. Bestalde, salmentek behera egiteak ez du ezer argirik adierazten, informatikaren munduan krisi orokor bat baitago. Appleren bizirautea zalantzan jartzen dutenak badiren arren, ez dirudi horrelakorik gertatuko denik. Etxera etorri, Euskal Herrian Mac ordenagailuak enpresa munduan inguru zehatzetan nagusi izan dira orain arte. Gaur egun, hau aldatzen ari da. Maketazio eta diseinu lanetan aritzen diren enpresa askok ere bazter utzi dute sagarraren mundua.

galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak galderak

Zertan oinarritzen da Microsoften aurkako monopolio salaketa? Zein egoeratan aurkitzen da afera?

Gorka Etxeberria

Salaketaren oinarria Microsoftek etxerako PCetan daukan nagusitasuna era berezi batean aprobetxatu izana da. Legearen arabera, nagusitasuna daukaten ekoizleek aukera libre bermatu behar dute, eta Microsoftena oso bestelako jardura izan da. Microsoft, ahal duen neurrian bere nagusitasuna aprobetxatuz, bestelako produktuen merkaturatzean ere gailentzen saiatu da. Adibidez, bere garaian nabigatzaileen munduan Microsoft eta Netscaperen artean zegoen borroka. Microsoftek, aurre hartzeko, nabigatzailea bera sistema eragilean txertatu zuen, ho-

rra erosoago bihurtu eta merkaturaren zati ederra kenduz Netscaperi. Gaur egun antzekoa gertatzen ari da gainerako zerbitzuekin ere —multimedia programak, momentuko mezularitza programak...—.

Gaur egun, lege aldetik eraso handiak ari da jasaten Microsoft. Hala ere, hau guztia itxurakeria besterik ez da, askoren ustez. Izan ere, jakina da Microsoft etxearen eta Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuaren arteko erlazioa estua dela. Aipagarriak dira oso Microsoften eta segurtasun zerbitzuen arteko harremanak. Zurrumurru gehienek arabera, etxe honen sistema eragile guztiak FBI eta CIAri informazioa bideratzeko prestatuak daude. Kontuak kontu, badi-rudi Microsoft banaraziko dutela, baina bestelako kalte handirik eragin gabe.